



2008ko irailak 8 astelehena  
171 Zenbakia

Lunes 8 de septiembre de 2008  
Número 171

## LABURPENA — SUMARIO

	<u>Orrialdea</u>		<u>Página</u>	
3	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak.	27.899	3 Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa.....	27.899
4	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa.....	27.903	4 Administración del T.H. de Gipuzkoa.....	27.903
5	Estatuko Administrazioa .....	27.935	5 Administración del Estado .....	27.935
7	Udal Administrazioa.....	27.968	7 Administración Municipal .....	27.968
8	Justizia Administrazioa.....	27.978	8 Administración de Justicia .....	27.978

3

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

3

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*2008ko irailaren 2ko 67/08 FORU DEKRETUA,  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Lanpostu Zerrendaren  
aldaketa onartzeari buruzkoa.*

2003ko abenduaren 22ko 104/03 Foru Dekretuaren bitartez, eta 2004ko urtarrilaren 7ko 3. zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta, Foru Aldundiko azken Lanpostu Zerrenda eguneratua onartu zen.

Lanpostu zerrenda etengabe eguneratu behar izaten da, berez izaera dinamikoa duelako eta une oro Foru Aldundiaren antolaketa-beharren benetako adierazpen izan dadin.

Alde batetik, Ogasun eta Finantza Departamentuak aurkeztutako antolaketa premiak osatzeko bidean, Ogasun Zuzendaritza Nagusiko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan bi lanpostu sortu behar dira, iruzurraren aurkako borroka eta prozesuen barne kontrola indartzeko xedez.

### DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL 67/2008, de 2 de setiembre, por el que se aprueba la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

Mediante el Decreto Foral 104/2003, de fecha 22 de diciembre, publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 3, de 7 de enero de 2004, se aprobó la última Relación actualizada de Puestos de Trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La relación de puestos de trabajo viene siendo objeto de un constante proceso de actualización como consecuencia de su naturaleza dinámica y con el propósito de que en todo momento resulte la expresión real de las necesidades organizativas de esta Diputación.

Por una parte, para completar las necesidades organizativas planteadas por el Departamento de Hacienda y Finanzas con objeto de reforzar la lucha contra el fraude y el control interno de los procesos, se requiere la creación de dos puestos de trabajo adscritos al Servicio de Gestión de Impuestos Directos de la Dirección General de Hacienda.

Beste alde batetik, 2007ko uztailaren 11ko 60/07 Foru Dekretuaren bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien eginkizun eta jarduera esparruak zehaztu ziren eta, ondoren, 2007ko uztailaren 17ko 65/07 Foru Dekretuaren bitartez departamentu egitura berria taxutu zen.

Orain, 2008ko maiatzaren 20ko 34/08 Foru Dekretuaren bitartez Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala onartuta dagoela, funtzionarioen lanpostuen zerrenda aldatzea beharrezkoa da, departamentuaren antolaketa berriari egokitu behar baita.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lanpostuen Balorazio Sistemaren mantentzeari buruzko prozedura arauetan xedatuta dagoen bezala, Diputatuen Kontseiluaren 2008ko uztailaren 29ko Erabakiaren ondorioz, zenbait lanpostuen balorazioa berraztertze eskaerak ebatzi dira, eta aldatu egin dira Ogasun Zuzendaritza Nagusiko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuko bi goi mailako teknikariren lanpostuen balorazioak.

Hori dela eta, egoki da goian aipatutako lanpostuei eragiten dieten aldaketak Lanpostu Zerrendan islatzea.

2005eko uztailaren 12ko 6/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 31.7.d) artikuluan xedatutakoa betez, eta Lehendakartzako eta Foru Administrazioiko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta erabaki ondoren,

## XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra.*

Onartzea langile funtzionarioentzat gordetako Gipuzkoako Foru Aldundiko Lanpostu Zerrendaren aldaketa, honekin batera doan eranskinean xedaturik dagoen bezala.

*Amaierako xedapena.*

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2008ko irailaren 2a.

DIPUTATU NAGUSIA,  
Markel Olano Arrese.

LEHENDAKARITZAKO ETA FORU  
ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUKO  
FORU DIPUTATUA,  
Eduarne Egaña Manterola.

(5438)

(9860)

Por otra parte, mediante Decreto Foral 60/2007, de 11 de julio, se determinaron los Departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y sus funciones y áreas de actuación, desarrollándose posteriormente la nueva estructura departamental mediante Decreto Foral 65/2007, de 17 de julio.

En la actualidad mediante Decreto Foral 34/2008, de 20 de mayo, se ha aprobado la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas, por lo que resulta precisa la modificación de la relación de puestos de trabajo de personal funcionario para adaptarla a la nueva organización departamental.

Además conforme a lo dispuesto en las Normas de Procedimiento para el Mantenimiento del Sistema de Valoración de Puestos, mediante Acuerdo del Consejo de Diputados de 29 de julio de 2008 se ha procedido a resolver diversas solicitudes de revisión de valoración de puestos de trabajo, modificándose la valoración asignada a dos puestos de Técnico Superior adscritos al Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos de la Dirección General de Hacienda.

Por todo lo anterior, procede introducir las modificaciones que afectan a dichos puestos en la Relación de Puestos de Trabajo.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 31.7.d) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Presidencia y Administración Foral y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha,

## DISPONGO

*Artículo único.*

Se aprueba la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa reservados a personal funcionario, conforme a lo dispuesto en el Anexo.

*Disposición final.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 2 de setiembre de 2008.

EL DIPUTADO GENERAL,  
Markel Olano Arrese.

LA DIPUTADA FORAL  
DEL DEPARTAMENTO DE  
PRESIDENCIA Y ADMINISTRACION FORAL,  
Eduarne Egaña Manterola.

(5438)

(9860)

## ERANSKINA

## LANGILE FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUEN ZERRENDAKO ALDAKETAK

## 04- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Aurreko egoera:

Honako lanpostu hauek aldatu dira:

Identifikazioa										Eskatutako betebeharrak									
Egitura	LK	Izena	DG	LM	PS	LZ	DM	DO	O. BEREZIA	ADM	ST	E	AZP	Titul.	Beteb. bereziak	HE	DZ	Der. Data	Oharrak
04 1002	29	GT ONDARE ESKUALDAKETAK ETA EJD.	1	E	L	69	1	24	18.366,09	GFA	A	2	4	531		3	1	2002/12/31	
04 1002	1089	GT ONDARE ESKUALDAKETAK ETA EJD.	1	E	L	69	1	24	18.366,09	GFA	A	2	4	500		3	1	1994/12/31	
04 1101	688	UB ZERGA LAGUNTZA	1	E	L	69	5	26	35.327,58	GFA	A/B			500-400		3	1	1994/12/31	
Dotazioak guztira: 3																			

Honako lanpostu hau amortizatu da:

Identifikazioa										Eskatutako betebeharrak									
Egitura	LK	Izena	DG	LM	PS	LZ	DM	DO	O. BEREZIA	ADM	ST	E	AZP	Titul.	Beteb. bereziak	HE	DZ	Der. Data	Oharrak
04 1000	1524	IKUSKATZAILE UNITATEBURUA	1	B	I	69	5	29	37.870,97		A			500		4	1	2007/12/31	
Dotazioak guztira: 1																			

Egoera berria:

Aldatu diren lanpostuak:

Identifikazioa										Eskatutako betebeharrak									
Egitura	LK	Izena	DG	LM	PS	LZ	DM	DO	O. BEREZIA	ADM	ST	E	AZP	Titul.	Beteb. bereziak	HE	DZ	Der. Data	Oharrak
04 0001	688	AB, KALITATEAREN KUDEAKETA	1	E	L	69	5	26	35.327,58	GFA	A/B			500-400		3	1	1994/12/31	
04 1002	29	GT ONDARE ESKUALDAKETAK ETA EJD.	1	E	L	69	1	25	19.302,06	GFA	A	2	4	531		3	1	2002/12/31	
04 1002	1089	GT ONDARE ESKUALDAKETAK ETA EJD.	1	E	L	69	1	25	19.302,06	GFA	A	2	4	500		3	1	1994/12/31	
Dotazioak guztira: 3																			

Sortu diren lanpostuak:

Identifikazioa										Eskatutako betebeharrak									
Egitura	LK	Izena	DG	LM	PS	LZ	DM	DO	O. BEREZIA	ADM	ST	E	AZP	Titul.	Beteb. bereziak	HE	DZ	Der. Data	Oharrak
04 1001	17	GOIMAILAKO TEKNIKARIA	1	E	L	69	1	25	17.743,48	GFA	A	2	4	500		3	11	2008/01/01	
04 1101	1602	UB, HERRITARREN ARRETA	1	B	I	69	5	27	33.771,69		A			500		4	1	2008/01/01	(1)
04 1001	1578	AB SOZIJETATEAK (2)	1	E	L	69	5	26	30.466,67	GFA	A/B			500-400		3	1	2008/01/01	(1)
Dotazioak guztira: 3																			

*Oharrak:* (1) Behin-behineko balorazioa*Oharrak:*

- Aipatzen den osagarri bereziaren zenbatekoa 2007ko ordainsariei dagokiena da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lanpostuen Zerrendan erabili ziren izenburuen taulak, 2004ko urtarrilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren (3. zenbakian).
- Ondoren zenbait aldaketa egin ziren 2004ko maiatzaren 20ko (94. zenbakian); 2005eko urtarrilaren 25eko (15. zenbakian) eta 2005eko apirilaren 11ko (66. zenbakian) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

## ANEXO

## MODIFICACION DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL FUNCIONARIO

## 04- DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Situación anterior:

Se modifican:

Identificación										Requisitos exigidos									
Estruct.	CP	Denominación	TD	TP	SP	CT	DE	CD	C. ESPECIF	ADM	GC	E	SUB	Título	Requisitos Específicos	PL	ND	Fecha Preceptiv.	Observaciones
04 1002	29	TS-TRANSMIS. PATRIMONIALES Y A.J.D.	1	N	C	69	1	24	18.366,09	DFG	A	2	4	531		3	1	31/12/2002	
04 1002	1089	TS-TRANSMIS. PATRIMONIALES Y A.J.D.	1	N	C	69	1	24	18.366,09	DFG	A	2	4	500		3	1	31/12/1994	
04 1101	688	JEFE UNIDAD ATENCIÓN TRIBUTARIA	1	N	C	69	5	26	35.327,58	DFG	A/B			500-400		3	1	31/12/1994	
Total Dotaciones: 3																			

Se amortiza:

Identificación										Requisitos exigidos									
Estruct.	CP	Denominación	TD	TP	SP	CT	DE	CD	C. ESPECIF	ADM	GC	E	SUB	Título	Requisitos Específicos	PL	ND	Fecha Preceptiv.	Observaciones
04 1000	1524	JEFE UNIDAD OPERATIVA INSPECCIÓN	1	S	L	69	5	29	37.870,97		A			500		4	1	31/12/2007	
Total Dotaciones: 1																			

Nueva situación:

Puestos modificados:

Identificación										Requisitos exigidos									
Estruct.	CP	Denominación	TD	TP	SP	CT	DE	CD	C. ESPECIF	ADM	GC	E	SUB	Título	Requisitos Específicos	PL	ND	Fecha Preceptiv.	Observaciones
04 0001	688	JSC GESTIÓN DE CALIDAD	1	N	C	69	5	26	35.327,58	DFG	A/B			500-400		3	1	31/12/1994	
04 1002	29	TS-TRANSMIS. PATRIMONIALES Y A.J.D.	1	N	C	69	1	25	19.302,06	DFG	A	2	4	531		3	1	31/12/2002	
04 1002	1089	TS-TRANSMIS. PATRIMONIALES Y A.J.D.	1	N	C	69	1	25	19.302,06	DFG	A	2	4	500		3	1	31/12/1994	
Total Dotaciones: 3																			

Se crean:

Identificación										Requisitos exigidos									
Estruct.	CP	Denominación	TD	TP	SP	CT	DE	CD	C. ESPECIF	ADM	GC	E	SUB	Título	Requisitos Específicos	PL	ND	Fecha Preceptiv.	Observaciones
04 1001	17	TÉCNICO SUPERIOR	1	N	C	69	1	25	17.743,48	DFG	A	2	4	500		3	11	01/01/2008	
04 1101	1602	JEFE DE UNIDAD DE ATENCIÓN CIUDADANA	1	S	L	69	5	27	33.771,69		A			500		4	1	01/01/2008	(1)
04 1001	1578	JSC SOCIEDADES (2)	1	N	C	69	5	26	30.466,67	DFG	A/B			500-400		3	1	01/01/2008	(1)
Total Dotaciones: 3																			

Observaciones: (1) Valoración provisional

Observaciones:

- -El importe del complemento específico se encuentra referido a las retribuciones correspondientes al año 2007
- -Las tablas de literales correspondientes a la codificación empleada en la Relación de Puestos de Trabajo aparecen publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 3, de 7 de enero de 2004, con alguna modificación incluida en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 94, de 20 de mayo de 2004; nº 15, de 25 de enero de 2005 y nº 66, de 11 de abril de 2005.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**
**KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO  
DEPARTAMENTUA**

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen eta udalez gaindiko erakundeen ardurapean bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzak emateko oinarriak.*

Diputatuen Kontseiluak, 2008ko irailaren 2an egindako batzarraldian, besteak beste, ondoko erabakia hartu du:

«Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren xede nagusietako bat, Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez betetzekoa, giza eskubideak Gipuzkoako Lurralde Historikoan sustatzea, zabaltzea eta defendatzea da, gure gizarteak maila lokalean eta globalean konpromiso handiagoaz eta modu aktiboagoan joka dezan. Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da Euskal Administrazio Publikoak maila guztietan parte hartzea, herri mailan bereziki, hori baita herritarren premia, interes eta kezketatik hurbilena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, giza eskubideen sustapenarekin eta zabalkundearekin konpromisoa erakutsirik, Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua sortu zuen 2003an, eta arlo horretako jarduketak kudeatu zituen lehenbizikoz. Lurralde Historikoan bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren egoera azalduko duen mapa bat edukitzeko asmoz, diagnostiko bat egin zuen eta, hartan, Gipuzkoako udalen esku baliabideak jartzeko eskatu zion Aldundiari, udalek bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntzarekin lotutako proiektuak eta ekintzak aurrera eramanez. Xede horrekin laguntza lerro bat sortzeko asmoa hartu zuen, horren bitartez udalei eta beste toki erakundeei baliabide materialak, ekonomikoak eta pertsonalak emateko, herri mailan bizikidetzaren eta bakearen aldeko proiektu integralak aurrera eramanez.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren giza eskubideekiko konpromisoak Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren eskutik jarraitu du, Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

Eusko Jaurlaritzak 2007ko abenduaren 26an Bakerako eta Giza Eskubideetarako Plana onartu izanak ongi erakusten du Euskal Autonomia Erkidego guztian bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko jarduketak plangintza orokor eta iraunkor baten barnean egiteko beharra ikusten duela, eta, Planaren lehen tasunen artean, gai hauetako lana udalerrri mailan bultzatzea dago.

Gauzak horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, udalei eta udalez gaindiko erakundeei behar duten laguntza teknikoak emateko diru laguntzak antolatzea komeni dela uste du, bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko planak eta proiektuak prestatu eta aurrera eramanez.

**DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA**
**DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y  
ACCION EXTERIOR**

*Bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para la realización de proyectos en materia de Educación para la Paz, la Convivencia y los Derechos Humanos a cargo de ayuntamientos y entidades supramunicipales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

El Consejo de Diputados, en sesión celebrada el 2 de setiembre de 2008, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

«Uno de los fines esenciales del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, es la promoción y la difusión de los Derechos Humanos así como su defensa en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, de manera que se contribuya a lograr una sociedad más activa y comprometida a nivel local y global. La consecución de este objetivo necesita de la participación de los todos los niveles de la Administración Pública Vasca, con especial relevancia de lo local, como instancia más cercana a las necesidades, intereses e inquietudes de la ciudadanía.

La Diputación Foral de Gipuzkoa como muestra del compromiso con la promoción y difusión de los derechos humanos crea en 2003 un Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social gestionando por vez primera actuaciones propias en este ámbito. Con la intención de obtener un mapa de la situación de la educación para la convivencia y la paz en el Territorio Histórico, elabora un diagnóstico en el que, entre otras actuaciones, se insta a la Diputación Foral a facilitar recursos a los municipios de su territorio para la implementación de proyectos y acciones en materia de Educación para la Paz y los Derechos Humanos. Para tal efecto, se propone la creación de una línea de ayudas que posibiliten dotar a los ayuntamientos y demás entidades locales de recursos materiales, económicos y personales para el desarrollo de proyectos integrales de convivencia y paz a nivel local.

Este compromiso para con los derechos humanos de la Diputación Foral de Gipuzkoa continua a través del Departamento de Deportes y Acción Exterior, concretamente a través de su Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad.

La aprobación del Plan Vasco de Educación para la Paz y los Derechos Humanos (Acuerdo del Consejo de Gobierno de 26 de diciembre de 2007) representa el compromiso del Gobierno Vasco con la necesidad de establecer una planificación global y permanente de todas las actuaciones de Educación para la Paz y los Derechos Humanos para toda la Comunidad Autónoma de Euskadi y, entre otros, establece como una de sus prioridades el impulso del trabajo en esta materia a nivel municipal.

A la vista de lo expuesto, la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, ha considerado conveniente establecer subvenciones destinadas a proporcionar la asistencia técnica necesaria a ayuntamientos y entidades supramunicipales, para el desarrollo y puesta en marcha de planes y proyectos en materia de Educación para la Paz, la Convivencia y los Derechos Humanos.

Horregatik, erabaki honetan, aipatu diru laguntzak emateko oinarriak onartzen dira.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, gaurko bileran eztabaidatu ondoren,

#### ERABAKI DU

*Lehenengo:* Onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen eta udalez gaindiko erakundeen ardurapean bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak egiteko diru laguntzak emateko oinarriak, erabaki honen amaieran biltzen direnak.

*Bigarren:* Onartzea aipatutako diru laguntzak emateko 2008ko deialdia.

#### 1. Finantzazioa.

1.1. 2008ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako ehun mila (100.000,00) euroko gastua egiteko baimena ematen da, aurrekontuko 1.0220.200.461.01.01 2008 kontu sailaren kargura.

1.2. Aurreko paragrafoan baimendutako gastuaren kopurua handitu edo txikitu egin dezake aldaketaren zenbatekoaren arabera horretarako eskumena emana duen organoak.

#### 2. Eskaerak aurkezteko epea: 2008ko irailaren 30era arte.

*Hirugarren:* Ahalmena ematea Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuari, erabaki hau zuzen gauzatu, interpretatu eta burutzeko behar diren egintzak emateko.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

#### ONARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

#### 1. Xedea.

Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen xedea bizikidetzeta, bakea eta giza eskubideak gaitzat dituzten proiektuak egitea da, eranskinean jasota dauden oinarri espezifikoak errespetatuz eta zerrenda honetan ageri diren esparruen barnean:

— Bakerako, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren egoeraren eta premien diagnostikoa.

— Bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko herri mailako plan orokorra.

— Bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren inguruko proiektuak eta ekimenak.

#### 2. Diru laguntzen entitate onuradunak.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek, udalez gaindiko erakundeek, mankomunitateek eta tokiko garapen agentziek eskura ditzakete oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzak.

Por ello, en el presente Acuerdo se aprueban las bases reguladoras del otorgamiento de las citadas subvenciones.

En su virtud, el Consejo de Diputados, a propuesta del diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior, y previa deliberación, en sesión del día de la fecha,

#### ACUERDA

*Primero:* Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para la realización de proyectos en materia de Educación para la Paz, la Convivencia y los Derechos Humanos a cargo de ayuntamientos y entidades supramunicipales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Dichas bases se insertan al final del presente Acuerdo.

*Segundo:* Aprobar la convocatoria correspondiente a 2008 de las citadas subvenciones.

#### 1. Financiación.

1.1. Para las subvenciones correspondientes al ejercicio presupuestario 2008, se autoriza un gasto por importe de cien mil euros (100.000,00), con cargo a la partida presupuestaria 1.0220.200.461.01.01 2008.

1.2. El importe del gasto autorizado en el apartado anterior podrá ser incrementado o disminuido por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación.

2. Plazo de presentación de las solicitudes: Hasta el 30 de setiembre de 2008.

*Tercero:* Facultar al diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior para dictar cuantos actos sean necesarios para el desarrollo, interpretación y ejecución del presente Acuerdo.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Diputados, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

#### BASES REGULADORAS GENERALES

#### 1.ª Objeto.

Es objeto de las subvenciones cuyo otorgamiento regulan las presentes bases la realización de proyectos en materia de Convivencia, Paz y Derechos Humanos, cuyas bases específicas se adjuntan como anexo, con arreglo a la siguiente relación:

— Diagnóstico de necesidades y de situación de la Educación para la Paz, la Convivencia y los Derechos Humanos.

— Planes Integrales Locales de Convivencia y Derechos Humanos.

— Proyectos e iniciativas en materia de Educación para la Paz y los Derechos Humanos.

#### 2.ª Entidades beneficiarias de estas subvenciones.

1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases los Ayuntamientos y entidades supramunicipales, mancomunidades y agencias de desarrollo local del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Diru laguntzen onuradun izateko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren 12. artikulua 2, 3 eta 4. ataletan ezarritako debekuek ez dietela eragiten egiaztatzeke, diru laguntzaren eskaerarekin batera, deklarazio arduratsua aurkeztu ahal izango da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ereduaren arabera egin.

3. *Diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko modua, lekua eta epea.*

1. Eskaerak, Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak emandako ereduaren arabera eginak, aurreko oinarrian eta oinarri hauekin batera doan eranskinean ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko dira, ahal dela eta dituzten ezaugarriek bide hori ixten ez badie, [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) atarian dauden euskarazko ala gaztelarazko sarrera helbideetan barrena. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan foru dekretu hauek bete behar dira: 2004ko maiatzaren 11ko 41/04 Foru Dekretua, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Internet bidezko harremanak arautzen dituena, eta 2006ko irailaren 12ko 40/06 Foru Dekretua, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duena.

Halaber, badago aukera eskaerak eta dokumentazioa Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiari zuzentzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren Erregistroan (Gipuzkoa plaza z/g, 2. solairua, Donostia) edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Zentralean (aurreko helbidearen beheko solairuan) aurkezteko; era berean, bidezkoa da 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan aurreikusitako bideren batetik aurkeztea.

2. Erakunde eskatzaileek proiektu bat baino gehiagotarako nahi badute diru laguntza, proiektu bakoitzeko eskaera bana aurkeztu behar dute. Proiektuek 1. oinarrian zehaztu diren jardun esparruren batean sartuta egon behar dute, eta eranskinean jasota dauden laguntza lerroaren oinarri espezifikoen aipatzen diren maximoen barnean.

3. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) web orrian eskuragarri egongo dira eta Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bulegoan ere jaso ahal izango dira.

4. Eskaerak aurkezteko epea urte bakoitzeko deialdian ezarriko da.

5. Erakunde eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko Gipuzkoako Foru Aldundiak lehendik dituen dokumentuak, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 35. f) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, baina eskaera orrian adierazi beharko dute zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, jaulki ziren, baldin eta dagokien prozedura amaitu ondoren ez badira bost urte iragan.

4. *Dokumentazio osagarria.*

1. Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren

2. La acreditación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones que se establecen en el artículo 12, apartados 2, 3 y 4, de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, podrá realizarse mediante la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud de subvención, según modelo que facilite la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3.<sup>a</sup> *Forma, lugar y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.*

1. Las solicitudes, según modelo que facilite la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas según la base anterior y lo señalado en el anexo que acompaña a estas bases, se presentarán, preferentemente y siempre que su naturaleza lo permita, vía Internet a través de las direcciones de acceso existentes, en euskera y castellano, en el portal [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net). Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 41/2004, de 11 de mayo, por el que se regulan las relaciones entre los ciudadanos y la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de Internet, y en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

También podrán dirigirse a la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, y presentarse en el Registro del Departamento de Deportes y Acción Exterior (plaza Gipuzkoa s/n, 2.<sup>a</sup> planta, Donostia-San Sebastián), en el Registro General de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en planta baja de la dirección anterior), o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. Las entidades solicitantes presentarán, en su caso, una solicitud por cada proyecto para el que se solicita subvención, debiendo cada uno de ellos corresponder a alguna de las actuaciones subvencionables descritas en la base 1.<sup>a</sup>, dentro de los máximos señalados en las bases específicas de la línea de subvención que se recoge en el anexo.

3. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la página Web [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) y se podrán recoger también en las dependencias de la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad.

4. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

5. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, debiendo indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan.

4.<sup>a</sup> *Documentación complementaria.*

1. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la

eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko eta adieraziko zaio hori egingo ez balu, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela, aipatu legearen 42.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuak eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

#### 5. *Emateko prozedura.*

1. oinarri hauetan jasotako diru laguntzak emateko prozedura deialdi eta hautaketa prozesu bakarreko lehia izango da.

2. Laguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

#### 6. *Balorazio irizpideak.*

Diru laguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri orokor hauen oinarri espezifikoak biltzen dituen eranskinean ezarritakoak izango dira.

#### 7. *Finantzazioa.*

1. Hala badagokio, eman daitezkeen diru laguntzak deialdiaren urteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu dira. Deialdiak ezarriko du diru laguntzak aurrekontuko zein kredituren kargurakoak izango diren.

2. oinarri hauen xede diren diru laguntzak xede bereko beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoekin, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak izanda ere, horren inguruan beste diru laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenen kalterik gabe.

3. oinarri hauetan erregulatutako diru laguntzen zenbatekoak, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatuen diru laguntza edota bestelako laguntzekin batera, ez du inola ere onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gaintutako.

4. Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatua izan daiteke.

#### 8. *Diru laguntzen zenbatekoa.*

1. Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta oinarri hauekin batera doan eranskinean definitutako diru laguntzen balorazio eta kuantifikazio irizpideak kontuan izanda. Edonola ere, proiektuaren kostu osoaren %75eraino emango da diru laguntza.

2. Diruz lagun daitezkeen gastuei dagokienez, eranskinean adierazitakoez gain, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 30. artikuluan ezarritakoa aplikatu beharko da, baina zehaztutako justifikazio aldia amaitu aurretik benetan ordainduta dagoenaz gain, sinesgarri hitzemandakoa ere egindako gastutzat hartuko da.

Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.

2. El Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

#### 5.ª *Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones contempladas en las presentes bases será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

#### 6.ª *Criterios de valoración.*

Los criterios de valoración de las solicitudes de subvención serán los que se señalan en el anexo que acompaña, como bases específicas, a estas bases generales.

#### 7.ª *Financiación.*

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

#### 8.ª *Cuantía de las subvenciones.*

1. El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración y cuantificación de las subvenciones definidas en el anexo que acompaña a estas bases. En todo caso, se subvencionará, como máximo, el 75% del coste total del proyecto.

2. En relación a los gastos subvencionables, además de los indicados en el anexo, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 30 de la Normal Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, si bien se considerará gasto realizado no sólo necesariamente aquél que haya sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación determinado, sino el que haya sido fehacientemente comprometido.



*9. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

1. Diru laguntza horiek emateko prozedura bideratzea Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko Idazkaritza Teknikoari eta Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiari egokituko zaio.

2. Izapideen aldia hasteko diru laguntzaren eskaeraren aurre ebaluazioa egingo da. Horretarako, Idazkaritza Teknikoak diru laguntzaren entitate onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatuko du.

3. Aurre ebaluazioa egin ondoren, eskaerak Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiari igorriko zaizkio eta hark, behar izanez gero kanpoko adituen laguntzarekin, balorazio txostena egingo du. Txosten hori Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

4. Batzorde Ebaluatzaileko kide izango dira Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko zuzendari nagusia (lehendakari izango da); Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko aholkularia; Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaitza eta Auditorietza Zerbitzuko teknikari bat; eta Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko idazkari teknikoak (batzordeko idazkari gisa).

*10. Diru laguntzak emateko ebazpena.*

1. Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatua edo Diputatuen Kontseilua izango da oinarri hauetan bildutako diru laguntzak ematea ebazteko eskumena duena, 2005eko uztailearen 12ko 6/05 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoan, eta 2008ko maiatzaren 20ko 32/08ko Foru Dekretuan, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren eta lehen diputatu nagusiordearen mendeko Gipuzkoako Bulego Estrategikoaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoan, ezarritakoaren arabera.

2. 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 59.6.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordezkatuko du eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

3. Behar diren ebazpenak eman eta argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da; epe hori diru laguntzen dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatuko da. Epe hori amaitutakoan entitate interesatuak ez badute ebazpenik jaso edo ez bada argitaratu, eskaera ezetsitatzeko joko da, administrazioaren isiltasunagatik.

*11. Erakunde onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

Erakunde onuradunek diru laguntzak onartzeak eragiten du, izaera orokorrarekin, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan, eta 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuan, foru arau hori garatzeko erregelamendua onartzen duenean, ezarritako betebeharrak betetzea. Horrez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak deitzen dituen bileretan parte hartzea, horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin beharrezko bide eta bitartekoak ezarritik.

*9.ª Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá a la Secretaría Técnica del Departamento de Deportes y Acción Exterior y a la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad.

2. La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación de la solicitud de subvención, que consistirá en la verificación por parte de la Secretaría Técnica del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de entidad beneficiaria de la subvención.

3. Realizada la preevaluación, las solicitudes serán analizadas por los técnicos o técnicas de la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, quienes, con la eventual asistencia de personas expertas externas, elaborarán un informe de valoración que será sometido a la Comisión Evaluadora que, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y será elevada al órgano competente para su aprobación.

4. Formarán parte de la Comisión Evaluadora la directora general de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, que presidirá la misma; la asesora del Departamento de Deportes y Acción Exterior; un técnico o una técnica del Servicio de Intervención y Auditoría del Departamento de Hacienda y Finanzas; y el secretario técnico del Departamento de Deportes y Acción Exterior, este último en calidad de secretario de la comisión.

*10.ª Resolución de concesión.*

1. El diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior o el Consejo de Diputados, será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases, conforme a lo establecido en la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el Decreto Foral 32/2008, de 20 de mayo, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Deportes y Acción Exterior y de la Oficina Estratégica de Gipuzkoa dependiente del Primer Teniente de Diputado General.

2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 59.6.b) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, pudiendo sustituir dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

3. El plazo máximo para dictar y publicar o notificar las resoluciones que correspondan será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la convocatoria de las subvenciones. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

*11.ª Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril. Estarán obligadas, además, a lo siguiente:

a) Participar en las reuniones que convoque la Dirección General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, para lo que se establecerán los cauces y medios necesarios que faciliten la máxima participación.

b) Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizia-  
len erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduera eta progra-  
men inguruko adierazpen guztietan, Gipuzkoako Foru  
Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera  
arautzen duen 2004ko martxoaren 8ko 21/04 Foru Dekretuak  
xedatutakoaren arabera.

c) Komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta aba-  
rretan hizkera ez-sexista erabiliko dela bermatzea.

d) Diruz lagundutako jarduera edo jarduketaren izaera  
publikoaren berri ematea. Besteak beste, laguntza eman duen  
entitatearen irudi instituzionala sar daiteke, edo finantzaketa  
publikoari buruzko legendak jar daitezke karteletan, plaka oro-  
garrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoko edo  
ikus-entzunezkoetan, edo diru laguntza hedabideetan aipatu  
daiteke.

### 12. Diru laguntzen ordainketa.

1. Diru laguntzak ordaintzeko modua, oinarri orokor  
hauetan arautzen diren diru laguntzei dagozkien oinarri espezi-  
fikoaren eranskinean zehaztuta dago.

2. Diru laguntzak jasotzen dituzten erakundeek izaera  
publikoa dutenez, ez da bermerik eskatuko ordainketa aurrera-  
tuengatik.

### 13. Diru laguntzei buruzko kontu zuritzea.

1. oinarri hauetako diru laguntzak, eranskinean bildutako  
berezitasunekin, egindako jarduerak zuritzen dituen kontu bat  
aurkeztuta zurituko dira. Honako hauek bildu beharko ditu:

a) Jarduketa memoria, diru laguntza ematean jarritako  
baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera burutu den  
eta zer emaitza izan den adierazi behar da.

b) Diruz lagundutako jardueraren gastuak eta inbertsioak  
sailkatzen dituen zerrenda, hornitzailea eta dokumentua, zenba-  
tekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data iden-  
tifikatuta. Diru laguntzaren eskaeran aurkeztutako aurrekontua-  
rekiko izandako desbiderapenak adieraziko dira.

c) Fakturak edo merkatuko trafikoko juridikoan edo admi-  
nistrazioan pareko froga balioa duten gainerako dokumentuak,  
soldaten eta beste gastu batzuen egiaztagiriak eta aurreko para-  
grafoan aipatutako zerrendakoak, eta, hala badagokio, ordain-  
keta egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren  
beste diru sarrera edo laguntzak, zenbatekoa eta jatorria barne,  
xehetasunez jasotzen dituen zerrenda.

e) Hala badagokio, ordainagiria, aplikatu gabeko sobera-  
kinen kasuan.

2. Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuak  
laguntza emandako proiektuen edo jardueren konprobazio jar-  
duerak egin ahal izango ditu (berak zuzenean edo beste per-  
sona edo entitate baten bitartez), erakunde onuradunari aurre-  
tik abisatuta, eta erakundeak erraztasunak eman beharko dizkio,  
behar duen lekuetara joateko eta informazioa eskuratzeko.

Egiaztapen horretatik ondorioztatuko balitz diruz lagun  
daikeen gastua emandako diru laguntza baino txikiagoa dela edo  
diru laguntza zuritzeko ezarritako baldintzak edo laguntzaren  
xede zena ez direla bete, diru laguntza jaso duen erakundeari  
jakinaraziko zaio, egiaztapenaren emaitzekin batera, eta diru  
laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratzeko proze-  
dura hasiko da edo, hala badagokio, diru laguntza osorik edo  
zati batean itzultzeko 15. oinarrian aurreikusitakoa.

b) Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la  
Comunidad Autónoma en las comunicaciones referidas a las  
actividades y programas subvencionados, de acuerdo con lo  
dispuesto en el Decreto Foral 21/2004, de 8 de marzo, que  
regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la  
Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Garantizar el uso de un lenguaje no sexista en todas las  
comunicaciones, publicaciones, programas, cursos, etc.

d) Dar la adecuada publicidad del carácter público de la  
financiación de las actividades o actuaciones objeto de subven-  
ción, mediante la inclusión de la imagen institucional de la enti-  
dad concedente, así como leyendas relativas a la financiación  
pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impres-  
sos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones  
realizadas en medios de comunicación.

### 12.ª Pago de las subvenciones.

1. El pago de las subvenciones se producirá del modo  
señalado en el anexo que contiene las bases específicas de las  
